

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Gela egonkorrak, eskolaz-kanpoko elkarlana eta praktika onak Covid garaian.

Egilea

Maidier Alonso Villagrán

Gradua

Lehen Hezkuntza

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 3. Osasuna eta ongizatea,
- 4. Kalitatezko hezkuntza,
- 16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak,
- 17. Helburuak lortzeko aliantza

Laburpena

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak, kasu batzuetan, gela egonkorretan eskolatzen dira. Izan ere, haiei eskaintzen zaien hezkuntza-erantzunetako bat da. Hori aintzat harturik, ikerkuntza honen helburu orokorra da irakasleek gela egonkorrekiko dituzten ikuspegiak ezagutzea eta Covid-ak gela honekiko izan duen eragina aztertzea. Horretarako, eskola publiko bat ikerketa eremutat hartu da, non bertako hezkuntza-profesionalen ikuspuntuak kontuan hartzen diren. Haiek ekarpenak egiteko, galdetegi bat bete dute. Guztira, 31 hezkuntza-profesionalak parte hartu dute. Eraitzen analisia burutzeko, hauek kategoriara antolatu dira, sistema kategorial bat osatu arte. Ikerkuntza honen ondorio nagusiak honakoak izan dira: irakasleen gehiengoari gela egonkorraren inguruko ezagutzak falta zaizkiola, gela egonkorra eskolan egotea aberasgarria dela, Covid 19-ak hezkuntza-eremuan ondorio negatiboak ekarri dituela eta eskolako profesionalen zein kanpo-profesionalen arteko elkarlana eskasa eta hobetu beharrekoa dela.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

2030 Agendaren mugimenduak kalitatezko hezkuntzaren alde egiten du, besteak beste. Hortaz, GRAL honek hainbat gai bere barne hartuz (eskola-modalitateak, profesionalen arteko harremana, etab.), lan hau baliagarritzat har daiteke, jorratzen diren hainbat alderdi haur



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



guztiei kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko funtsezkoak izan daitezkeelako. Ondorioz, benetako ikaskuntza esanguratsua eta hurren garapen integrala lortu ahalko litzateke, lan hau aintzat hartuz eta lortutako emaitzen zein ondorioen inguruko hausnarketa kritiko bat eginez.